

# BESTELAKO XEDAPENAK

## LAN ETA ENPLEGU SAILA

### 2915

*AGINDUA, 2023ko ekainaren 14koa, Jaurlaritzako bigarren lehendakariorde eta Lan eta Enplegu sailburuarena, zeinaren bidez onartzen baitira Euskadiko Gizarte Ekonomiako enpresetan asistentzia teknikoak emateko laguntzen deialdirako oinarriak eta horren deialdia egiten baita 2023. urterako.*

Gizarte-ekonomiako enpresen gobernantzak eta administrazioak, oro har, ez dute gainerako enpresetan aplikatutakoaz bestelakoa den berezitasunik behar. Ondorioz, kudeaketa eragin-kortasunez eginez gero, dagozkion emaitzak izango ditu, eta bazkideei onurak eragingo dizkie. Gizarte-ekonomiaren kasuan, bazkideak langile ere badira. Agindu honen bidez, gobernantza ekonomiko-finantzariorako dauden balio onenen erabilera sustatu nahi da.

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 8.1 artikuluan ezarritakoa betez, deialdi hau Lan eta Enplegu Sailaren 2023. urterako Dirulaguntzen Plan Estrategikoan aurreikusita dago (<https://www.euskadi.eus/eusko-jaurlaritza/lan-enplegu-saila/> webgunean dago argitaratuta plan hori).

Horrenbestez, Euskal Autonomia Erkidegoko 2023. urteko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen abenduaren 23ko 15/2022 Legea onartu ostean, deialdia finantzatzeko aurrekontu-kreditu nahikoa dagoela egiaztatuta eta Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseiluak adierazitakoa kontuan hartuz, Lan eta Enplegu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urtarrilaren 19ko 7/2021 Dekretuak ematen dizkidan eskumenak baliatuz, hauxe

#### EBAZTEN DUT:

##### 1. artikulua.– Xedea.

Agindu honen xedea da: Eusko Jaurlaritzak, Lan eta Enplegu Sailaren bitartez, sozietate kooperatiboen eta lan-sozietateen kudeaketa hobetzeko asistentzia teknikorako emango dituen laguntzen deialdia egiteko oinarriak onartzea eta haren deialdia egitea 2023. urterako.

##### 2. artikulua.– Dirulaguntza izan dezaketen jarduerak.

###### 1.– Agindu honen ondorioetarako, hauek jotzen dira asistentzia teknikoko ekintzatat:

a) Urteko kudeaketa-plana edo aginte-taula integrala egitea eta ezartzea, enpresen egitura ekonomiko-finantzarioa barne.

b) Kooperatiben eta lan-sozietateen merkataritza-kudeaketako aholkularitza espezifikoa jasotzea.

c) Kudeatzailtzari laguntzeko zerbitzu espezializatuak kontratatzea, kudeatzaileen edo zuzendarien egitekoetan laguntzeko, edo kooperatiba eta lan-sozietateetako jardun-arloekin zerikusia duten zerbitzuak kontratatzea, profesionalizazioa areagotzen laguntzeko xedez, merkatuan lehiakortasunari eusteko eta lehiakorragoak izateko giltzarrietako bat delako.

d) Zailtasunak dituzten enpresak suspertzeko plantzat hartzen diren ekintzak egitea, gomendio zehatzak barnean hartuta enpresaren lehiakortasuna hobetzeko eta, hala badagokio, finantzaketa lortzeko.

- e) Erakundeak eraldatzeko tresna berriak ezartzea.
- f) Enpresak digitalizatzeko tresnak ezartzea.
- g) Enpresetan ingurumena hobetzeko ekintzak garatzea.
- h) Abal eta bermeen sistema indartzeko azterlana egitea, gizarte-ekonomiako enpresei lotuta, elkarrekiko berme-sozietateen bidez.
- i) Ordezkaritza handiena duten gizarte-ekonomiako erakundeek aldeztu behar den azterlan ekonomiko eta finantzarioa egitea, euren erakunde elkartuei bermeak emateko.

2.– Ekintzek 2023. urtean izan beharko dute hasiera. Aurreko paragrafoko i) apartatuko ekintzei dagokienez, hau hartuko da ekintzaren hasiera-datatzat: ordezkari handiena duten gizarte-ekonomiako erakundeek euren erakunde elkartuei bermeen prestazioa egingo dien erakundearekin hitzarmena sinatzen duten eguna.

3.– Gehien jota, ekintzak 2024ko lehen hiruhilekoan bukatu behar dira.

4.– Dirulaguntza bakarra eman ahal izango zaio erakunde eskatzaile bakoitzari, eta, dirulaguntzari loturiko jarduera bakarra egiteko, 5.2) artikuluan jasotako salbuespenarekin.

3. artikulua.– Baliabide ekonomikoak eta emakidaren muga.

1.– Agindu honen xedea betetzeko, laurehun eta berrogei mila (440.000) euroko gehieneko kopurua erabiliko da guztira, honela banatuta: berrehun eta hirurogeita lau mila (264.000) euroko ordainketa-kreditua 2023ko ekitaldirako, eta ehun eta hirurogeita hamasei mila (176.000) euroko konpromiso-kreditua 2024ko ekitaldirako.

2.– Laguntza hauek finantzatzera bideratutako baliabide ekonomikoak honela banatuko dira:

a) 2.1.i) artikuluko laguntzetara 50.000 euro bideratuko dira.

b) Gainerako laguntzetara 390.000 euro bideratuko dira.

3.– Laguntzak esleitzeko, lehiarik gabeko aldibereko konkurrentzia-prozedura erabiliko da. Prozedura horretan, eskabide guztiek izango dute aukera deialdiaren xede diren laguntzak jasotzeko, garaiz eta behar bezala formulatzen badira eta betekizun objektiboak eta subjektiboak betetzen dituztela egiaztatzen badute. Horretarako, kalkulatu da zer zenbateko dagozkion eskabide bakoitzari, aintzat hartuta zein diren agindu honetako 12. artikuluan aurreikusten diren gehieneko portzentajeak eta zenbatekoak.

4.– Zenbateko horiei dagozkien dirulaguntzak esleituko dira, baldin eta artikuluko 1. paragrafoan adierazitako zuzkidura ekonomikoa nahikoa bada aurreko apartatuan adierazita koaren arabera hasiera batean kalkulatu zenbatekoak ordaintzeko.

5.– Hornidura ekonomikoa ez bada aski hasieran kalkulatu zenbateko guztiak estaltzeko, eta 5.2 artikuluan zehaztutako kolektiboetakoren batean erakunde onuradunen kolektiboa artatzeko saldoa sobratzen bada eta bestean ebazpen positibo guztiak estaltzeko baliabideak falta badira, soberan dagoen saldoa beste taldearen beharrezan estaltzeko erabiliko da.

6.– Aurreko aukeretako bat ere gertatzen ez bada, murrizketa proportzionala aplikatuko da kalkulatu zenbatekoetan, bereizita, talde bakoitzerako.

#### 4. artikulua.– Bitarteko elektronikoen erabilera.

1.– Agindu honetan aurreikusitako laguntzetarako eskabideak bitarteko elektronikoa erabiliz izapidetuko dira.

2.– Agindu honen administrazio-prozeduraren informazio-fitxa eskuragarri egongo da Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoa, helbide honetan: <https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/0036521>. Eskabidera sartzeko aukera egongo da, era berean, aipatu helbide telematikoa.

3.– Eskabidea aurkeztu ondorengo izapideak, jakinarazpenak barne, «Nire karpeta» atalaren bidez egingo dira, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoa: <https://www.euskadi.eus/nirekarpeta>

4.– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoa identifikaziorako eta sinadura elektronikorako onartzen diren bitartekoak helbide honetan daude eskuragarri: <https://www.euskadi.eus/ziurtagiriak>

5.– Prozedura osoa ordezkaritza baten bidez izapidetu ahal izango da; horretarako, ordezkaritza inskribatu ahal izango da Eusko Jaurlaritzako Ordezkaritza Erregistroan, helbide honetan: <https://www.euskadi.eus/ordezkaritza>

#### 5. artikulua.– Erakunde onuradunak eta horien baldintza bereziak.

1.– Jarduera nagusiki Euskal Autonomia Erkidegoan gauzatzen duten erakundeek eskuratu ahal izango dituzte agindu honetan aurreikusitako laguntzak, zehaztutako hauei jarraikiz:

a) Kooperatiba eta lan-sozietateak: 2.1 artikuluko a) apartatutik g) apartatura bitartean sartutako jardueretarako.

b) Gizarte-ekonomiako enpresen elkarte-erakundeak.

2.– Gizarte-ekonomiako enpresak ordezkatzen dituzten elkarte-erakundeek eskaera bat aurkeztu ahalko dute, elkartutako enpresak batzen dituen, diruz lagundutako kudeaketa-tresnaren bat egiteko. Kasu horretan, diruz lagundutako jarduera egiteak doakoa izan beharko du erakunde elkartu edo federatuentzat, eta elkarte-erakundeak berak ordainduko du Administrazioak bere gain hartu ez duen kostua. Eman beharreko zenbatekoa kalkulatzeko, baldintza orokor edo berezi guztiak betetzen dituzten enpresak edo erakundeak soilik hartuko dira kontuan, laguntza-eskabi-dearekin lotutako lerro partikularraren arabera.

3.– 2.1 artikuluko a), f) eta g) apartatuen kasuan, kooperatiba edo lan-sozietate onuradunak azken bost urteen barruan eratuta edo eraldatuta egon beharko dira; epe hori 15 urtekoa izango da 2.1.d) artikuluko kasuetan.

4.– 2.1 artikuluko a), c) eta e) apartatuen kasuetan, enpresan 100 langile baino gutxiago egon beharko dira. 2.1 artikuluko f) eta g) apartatuen kasuetan, enpresan 10 langile baino gutxiago egon beharko dira.

5.– 2.1 artikuluko a), b), c), d), e), f) eta g) apartatuen kasuetan, gizarte-ekonomiako erakunde ordezkaritza baten edo kanpoko aholkularitza-erakunde baten aholkularitza eduki beharko da.

6.– 2.1 artikuluko a), b), c), d), e), f) eta g) apartatuen kasuetan, ezin izango dute aurretik laguntza publikorik jaso antzeko kudeaketa-tresnak ezartzeko.

7.– 2.1.d) artikuluan jasotakoaren ondorioetarako, egoera hauetako batean daudela egiaztatzen duten enpresak hartuko dira zailtasunak dituzten enpresatzat: gero eta galera-maila handiagoa izatea, negozio-bolumena murriztea, izakinak gehitzea, gehiegizko gaitasuna izatea, autofinantzaketarako marjina gordina gutxitzea, gero eta zorpetze handiagoa izatea, finantza-gastuak handitzea, eta aktibo garbia ahuldu edo desagertzea.

8.– 2.1.e) artikuluan jasotakoaren ondorioetarako, erakundea eraldatzeko tresna berrizat joko dira pertsonak enpresen funtsezko ardatz egituratzaile gisa hartuta eredu hauetakoren bat ezartzen dutenak:

– Sareko antolaketa-eredu malguak: enpresa-eredu tradizional, piramidal eta taylorista erakunde malguago bihurtzea, inguruaren aldaketetara egokitzeko.

– Kontziliazioa kudeatzeko sistemak: gizartearen, enpresen eta pertsonen interesak uztartzen dituzten tresnak.

– Pertsonen garapenerako ereduak: pertsonen gaitasunak ezagutzeko, horien hobekuntza-arloak antzemateko eta hazteko aukerak identifikatzeko tresnak, egungo eta etorkizuneko enpresan duten zereginaren barruan.

– Gatazkak kudeatzeko tresna aurreratuak.

6. artikulua.– Aholkularitza-erakundeak.

Baldintza hauek bete behar dituzte aurreko artikuluan adierazi diren kaudimen aitortuko aholkularitza-erakundeek –persona fisikoak nahiz juridikoak izan daitezke–:

a) Batez ere Euskal Autonomia Erkidegoan garatzea beren jarduera.

b) Jardueraren ardatza enpresa-aholkularitza izatea.

c) Euskal Autonomia Erkidegoko lan-zentroetan, goi-mailako tituludunak izatea, batez ere gizarte-ekonomiako enpresetan egiaztatutako esperientzia dutenak, kasu guztietarako, 2.1.b) artikuluan jasotakoa salbu. 2.1.d) artikuluan jasotakoaren ondorioetarako, zailtasunak dituzten eta desagertzeko arriskuan dauden gizarte-ekonomiako enpresen azterketan daukaten esperientzia egiaztatu beharko dute.

d) Lanaren gaineko ardura duen aholkulariak aholkularitzako enpresan gutxienez hiru urteko esperientzia daukala egiaztatu beharko du.

e) Aholkulariek edo haiek partaide diren aholkularitza-enpresek ezin izango dute inolako loturirik izan, ez zuzenean ez zeharka, laguntzak eskatzen dituzten erakundeekin, ez akzioen ez partizipazioen bidez. Betekizun hau ezin izango zaie ezarri 5.1.b) artikuluko erakundeei.

7. artikulua.– Onuraduna izateko betekizun orokorrak.

1.– Agindu honetako laguntzak lortu ahal izateko, erakunde eskatzaileek betekizun hauek bete behar dituzte:

a) Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzakoak betetzea.

b) Dirulaguntza edo laguntza publikoak eskuratzea galarazten duen zehapen penal edo administratiborik ez izatea, edo horretarako desgaitzen duen legezko debeku baten pean ez egotea.

c) Hala badagokio, dirulaguntza itzultzeko betebeharrak egunean izatea, bai eskabidea egiteko unean, bai ordainketen unean.

d) Erakunde eskatzaileak erantzukizunez deklaratzeari zer egoeratan dagoen Administrazio honi edo beste administrazio publiko batzuei xede eta helburu berberaz eskatutako beste edozein laguntza (eskatuta, izapideak egiten nahiz emanda).

e) Berdintasun-plan bat izatea indarrean, baldin eta beharrezkoa bada Estatuko araudiaren arabera. Era berean, 50 langile baino gehiago dituzten enpresen kasuan, sexu-jazarpena edo sexuan oinarritutako jazarpena prebenitu eta eragozteko neurriak izatea, emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan estatuak ezarrita dituen legeen arabera.

f) 50 bazkide baino gehiago dituzten kooperatiba-sozietateen kasuan, bitarteko espezifikoak jartzea kooperatiba emakumeen kontrako indarkeriarik gabeko eremua izan dadin.

2.– Era berean, ezingo dira agindu honetan araututako dirulaguntzen onuradun izan Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluan aipatutako egoeretakoren batean dauden erakundeak.

3.– 2.1.h) artikuluan jasotako jardueretarako, diruz lagundu daitekeen gastuaren zenbatekoak Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legean kontratu txikirako ezarritako zenbatekoak gainditzen baditu, erakunde onuradunek hornitzaile desberdinen hiru eskaintza izan beharko dituzte gutxienez zerbitzua emateko konpromisoa hartu aurretik, salbu eta ezaugarri bereziak direla eta halakorik ez badago, horiek egin, mailegatu edo hornitzen dituzten erakundeen kopuru nahikoan, edo gastua dirulaguntzaren aurretik egin bada.

Aurkeztutako eskaintzen artean egindako hautua (justifikazioan, edo, hala badagokio, dirulaguntzaren eskabidean aurkeztu beharko dira) efizientzia- eta ekonomia-irizpideekin bat etorri egin beharko da, eta berariaz justifikatu beharko da memoria batean, baldin eta proposamen ekonomiko onenaren alde egiten ez bada.

8. artikulua.– Erakunde onuradunek baldintzak egiaztatzea.

1.– Eskabidearekin batera aurkeztuko duten erantzukizunpeko adierazpen baten bidez, erakunde onuradunek adierazi behar dute bete egiten dituztela aurreko artikuluan zehazten diren betekizunak, baita Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluan adierazitako gainerako betekizunak ere. Dirulaguntza emateko ebazpen-proposamena baino lehen, gehienez ere 15 eguneko epean, adierazpenean aipatutako betekizunak betetzen direla egiaztatzeko dokumentazioa aurkezteko eskatuko da, aurreko artikuluko a) eta e) apartatuen kasuan.

2.– Eskabidea aurkeztean, baimena ematen da Gizarte Ekonomiaren Zuzendaritzak zuzenean eskuratu ditzan administrazioaren esku dauden edo edozein administrazio egin ahal izan dituen era guztietako agiriak, zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen direla egiaztatzeko horiek barne. Hala ere, baimena berariaz ukatu ahal izango da, eta, kasu horretan, erakunde eskatzaileak ogasun-agintaritzaren eta Gizarte Segurantzaren administrazio-instantziak eginiko ziurtagiriak aurkeztu beharko ditu. Betebehar horiek egunean izatea nahitaezkoa da onuradun izateko eta onuradun gisa jarraitzeko harik eta onartutako dirulaguntza likidatu arte; horrenbestez, dirulaguntza emateko unean eta ordainketak egiteko unean, egiaztatu egingo da ea betetzen diren betebehar horiek.

3.– Eskabideetan aukera egongo da laguntza jaso duen erakundeak esanbidez uka dezan datuak edo dokumentuak organo kudeatzaileak lortzea edo egiaztatzea, hargatik eragotzi gabe administrazio publikoek esleituta dauzkaten egiaztatze-, kontrol- eta ikuskatze-ahalmenak betetzea. Kasu horretan, erakunde eskatzaileak berak aurkeztu beharko ditu eskatutako nahitaezko agiriak.

4.– Erakunde onuradunek, eskabidearekin batera aurkeztuko duten erantzukizunpeko adierazpen baten bidez, adieraziko dute betetzen dutela berdintasun-planei buruzko estatuko araudia, bai eta sexu-jazarpenari edo sexuan oinarritutako jazarpenari aurre egiteko eta aurka egiteko neurriei dagokienez estatuko legeriak ezartzen duena ere.

5.– 50 bazkide baino gehiago dituzten kooperatiba-sozietateen kasuan, erakunde onuradunek, eskabidearekin batera aurkeztuko duten erantzukizunpeko adierazpen baten bidez, adieraziko dute bitarteko espezifikoak jarri dituztela kooperatiba emakumeen kontrako indarkeriarik gabeko eremua izan dadin.

9. artikulua.– Eskabideak aurkezteko modua eta epea.

1.– Eskabidea egoitza elektronikoko honetan egongo da eskuragarri: <https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/0036521>

2.– Eskabideak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

3.– Erakunde eskatzaileek euskaraz edo gaztelaniaz aurkez ditzakete eskabidea eta agiriak, aukeran. Orobat, prozeduran zehar, pertsona edo erakunde eskatzaileak hautatutako hizkuntza erabiliko da, Euskararen Erabilera Normalizatzeari buruzko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legearen 6.1 artikuluan ezarritakoaren arabera.

10. artikulua.– Nahitaezko dokumentazioa.

1.– Dirulaguntza jasotzeko eskabidearekin batera, justifikazio-memoria aurkeztu behar da, bai eta dirulaguntza jaso dezaketen jarduerak gauzatzeko aurreikusitako lan-plana ere. Plan horretan, iraupena, metodologia eta kalkulaturako aurrekontu zehatza adierazi behar dira.

2.– Horretaz gain, 2.1 artikuluko jardueri buruzko eskabideekin batera, beste dokumentu hauek ere aurkeztu behar dira, 2.1.h) eta 2.1.i) artikuluan jasotakoak salbu:

a) Agindu honen 6. artikuluan adierazitako erakunde baten laguntza eta lankidetzako konpromisoa dagoela agertzen duen agiria, hau da, harekin egindako kontratua edo eskabide irmoaren agiria, erakunde horrek aipatu artikuluko baldintzak betetzen dituela agertzen duten frogagiriekin batera.

b) 2022ko ekitaldiaren balantze ekonomikoa eta emaitzen kontua.

c) Aholkulariaren edo aholkularitza-lanaren arduradunaren curriculuma.

d) Erakunde eskatzailearen erantzukizunpeko adierazpena, non adieraziko baitu ez duela aholkularitzarekiko edo pertsona fisiko aholkulariarekiko inolako loturarik, ez zuzenean ez zeharka, ez akzioen ez partizipazioen bidez, 5.1.b) artikuluko erakundeen kasuan salbu.

3.– 2.1.h) artikulua kasurako, diruz lagun daitekeen gastuaren zenbatekoak gainditu egiten baditu Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legean kontratu txikirako ezarritako zenbatekoak, aurkeztutako eskaintzen arteko hautua efizientzia eta ekonomiako irizpideen arabera egingo da, memoria batean berariaz justifikatuz hautua, proposamen ekonomiko abantailatsuenaren aldekoa ez bada.

4.– 2.1.i) artikulua kasuan, erakunde-elkarteak emandako ziurtagiria erantsi beharko da, xedapen horrek arautzen duen zerbitzuaren antolaketa egiaztatzen duena.

5.– Erakunde eskatzaileari laguntza jasotzeko eskubidea onartzen bazaio, emandako laguntza-orden ordainketa jasotzeko Ekonomia eta Ogasun Saileko Hirugarrenen Erregistroan eman beharko

du izena. Erregistratu gabe egonez gero edota jasota dauden datuak aldatu nahi izanez gero, alta edo aldaketa egin daiteke <https://www.euskadi.net/hirugarrenak> helbidean.

11. artikulua.– Eskabidean egindako hutsak zuzentzea.

Dirulaguntzen eskabideen termino guztiak beteta ez badaude edo beharrezko dokumentazioarekin batera ez badatoz, erakunde eskatzaileari eskatuko zaio akatsa konpon dezala edo beharrezko dokumentuak gainera ditzala, betiere hamar eguneko epean, eta jakinaraziko zaio hori egiten ez badu atzera botako zaiola eskabidea. Administrazioak eskabide horri buruzko berariazko ebazpena eman beharko du, eta ebazpen hori jakinarazi, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 21.1 eta 68.1 artikuluetan xedatutakoari jarraikiz.

Erakunderen batek eskabidea aurrez aurre aurkeztu nahi izango balu, bide elektronikoz aurkeztu beharra dagoela adieraziko zaio. Ondorio horietarako, eskabidea bide hori erabiliz aurkezten den eguna hartuko da aurkezpen-datatzat.

12. artikulua.– Dirulaguntzak jaso ditzaketen gastuak, dirulaguntzen zenbatekoa eta zenbateko hori zehazteko irizpideak.

1.– Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 31. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, 2.1 artikuluko a), b), d), f) eta g) apartatuetako kasuei dagokienez, diruz lagundu daitezkeen gastuak dirulaguntzako proiektua egiteko behar den aholkularitzaren gastuak izango dira. Artikulu horren i) kasuari dagokionez, bermeak eratu aurretiko azterketa ekonomiko eta finantzarioa egiteko behar diren gastuak izango dira diruz laguntzeko modukoak. c) apartatuari dagokionez, aipatutako zerbitzuak kontratatzeko gastuak.

2.– Zenbateko hauek egokituko zaizkie betekizunak betetzen dituzten eskabideei:

a) Agindu honen 2.1 artikuluko a), b), d), e), f) eta g) apartatuetan arautzen diren ekintzetarako: aholkularitza-ekintzaren % 75; baina gehienez sei mila (6.000) euro eman dakioke erakunde onuradun zuzen bakoitzari hamar bazkide baino gehiago baldin baditu, agindu honen 5.4 artikuluan ezarritako baldintzen arabera, eta hiru mila (3.000) euro eman dakioke gehienez, erakunde onuradun horrek hamar bazkide edo gutxiago baldin baditu.

Ekintza hauetarako erakunde onuraduna 5.1.b) artikuluan zehaztutako horietatik kanpo badago, zenbatekoa zehazteko kalkulua banan-banan egingo da baterako eskabidean jasotako erakunde bakoitzeko, atal honetan ezarritako baldintza berbetan. Kontzeptu honengatik, erakunde onuradunak ezin izango du 30.000 eurotik gorako dirulaguntzarik jaso. 2.1.i) artikuluko jardueren kasuan, aholkularitza-enpresaren jardueraren kostuaren % 75 emango da, diruz lagundutako jarduera bakoitzeko gehienez ere hogeita bost mila (25.000) euroko mugarekin. 2.1.h) artikuluko jardueren kasuan, aholkularitza-enpresaren jardueraren kostuaren % 75 emango da, diruz lagundutako jarduera bakoitzeko gehienez ere hogeita mila (20.000) euroko mugarekin.

b) Agindu honen 2.1 artikuluko c) apartatuan adierazten diren ekintzetarako: kontratatutako erakunde edo pertsonaren jardueraren kostuaren % 50, eta, gehienez ere, hamar mila (10.000) euro erakunde onuradun zuzenarentzat.

13. artikulua.– Beste dirulaguntza edo laguntza batzuekiko bateragarritasuna.

1.– Agindu honetan arautzen diren dirulaguntzak bateragarri dira, xede eta helburu berarentzako, beste edozein administrazio edo erakunde publikok emandakoekin. Nolanahi ere, dirulaguntzen zenbatekoak ezin izango du diruz lagundutako jardueraren kostu osoa gainditu, ezta agindu honen 12. artikuluan aurreikusitako gehieneko zenbatekoa ere.

2.– Erakunde onuradunak Administrazio honetatik edo beste administrazio edo erakunde publiko batzuetatik arrazoi eta xede beragatik jasotzen dituen laguntzak eta agindu honetako laguntzak pilatzen badira, eta laguntza horien baturak laguntza-gai den jardueraren kostua edo agindu honen 12. artikuluan aurreikusitako gehieneko zenbatekoa gainditzen badu, soberakin horren bateraezintasuna deklaratu da, eta, hala badagokio, murriztu egingo da Lan eta Enplegu Sailak eman beharreko laguntzaren zenbatekoa.

3.– Agindu honen edozein laguntza bateraezina izango da Gizarte Ekonomiaren Zuzendaritzak 2023ko ekitaldiko deialdirako gizarte-ekonomiako Ekintzailertzan aritzeko aginduaren barruan kudeatzen dituen horiekin.

14. artikulua.– Kudeaketa, ebazpena, epea eta publikotasun-prozedura.

1.– Gizarte Ekonomiaren Zuzendaritza izango da agindu honetan aurreikusitako dirulaguntzak kudeatzeko organo eskuduna.

2.– Gizarte Ekonomiaren zuzendariak emandako ebazpen bakar baten bidez eman edo ukatuko dira agindu honetan aurreikusitako dirulaguntzak. Ebazpen bakar hori eskatzaileei banaka jakinaraziko zaie, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean ezarritakoaren arabera.

Ebazpen horrek ez dio amaiera ematen administrazio-bideari, eta, haren aurka, gora jotzeko errekurtoa jar daiteke Lan eta Gizarte Segurantzako sailburuordearen aurrean, hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 121. eta 122. artikuluetan xedatutakoa betez.

3.– Agindu honen babesean egindako eskabideak esanbidez ebazteko eta jakinarazteko epea sei hilabetekoa izango da gehienez, aginduak ondorioak dituenetik aurrera. Epe horretan ez bada berriazko ebazpenik eman eta jakinarazi, eskabideak ezetsi direla ulertuko da, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 25.1 artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako. Edonola ere, ez da eragotziko Administrazioak berriaz ebazteko duen betebeharra.

4.– Agindu honetan aurreikusitako laguntzak erakunde onuradunei ematea eta, hala badagokio, ordaintzea, baldintzapean geratuko da; hain zuzen ere, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eta horren erakunde autonomoek emandako izaera bereko dirulaguntzen edo laguntzen esparruan hasita dauden baina oraindik bideratzen ari diren itzulketa- edo zehapen-prozedura guztiak amaitzearen baldintzapean.

5.– Publikotasun-printzipioa betetzeko, hau argitaratuko da Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian, Gizarte Ekonomiaren zuzendariaren ebazpenaren bidez: alde batetik, agindu honen babesean dirulaguntza zer erakundek jaso duten eta zenbateko laguntza jaso duten, eta, bestetik, zer erakunderi aldatu zaizkien emandako dirulaguntzak. Nolanahi ere, ebazpena espresuki eta banan-banan ere jakinarazi ahal izango da.

15. artikulua.– Dirulaguntza ordaintzeko eta justifikatzeko modua.

1.– Deialdi honen babespean emandako dirulaguntzak ordaintzeko lehendabiziko ordainketa (dirulaguntza osoaren % 60) laguntzaren emakida jakinarazi eta hamabost egun igaro ondoren egingo da, espresuki uko egin ez bazaio. Gainerako % 40, diruz lagundutako ekintzak amaitu direnean eta behar bezala justifikatu direnean ordainduko da.



2.– Dirulaguntzaren bigarren ordainketa egiteko, erakunde onuradunak egindako jardueren memoria eta egindako gastuaren egiaztagiriak aurkeztu beharko ditu. Horretarako, diruz lagundutako jarduerari egotzitako ordainagiriaren kopia elektronikoa aurkeztuko ditu. Egindako lanen kopia ere aurkeztu beharko du.

3.– Aurreko puntuan adierazitako agiriak aurkezteko epea 3 hilekoa izango da, diruz lagundutako ekintzak amaitzen direnetik aurrera, eta, betiere, 2023ko ekainaren 30a baino lehen aurkeztu beharko da dokumentazio hori.

4.– Dirulaguntza jaso dezaketen eta egiaztatzen diren gastuak bat etorriko dira onuradunek egiaz ordaindutako kostu errealekin, eta ordaindutako jatorrizko fakturen kopia elektronikoen bidez edo froga-balio bera duten kontularitza-agiriaren bidez egiaztatu beharko dira.

16. artikulua.– Erakunde onuradunen betebeharrak.

1.– Agindu honetan deitutako laguntzen erakunde onuradunek beti bete beharko dute Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 14. eta 46. artikuluetan ezarritako eta Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren 50.2 artikuluan ezarritako betebeharrak.

2.– Betebehar hauek ere bete beharko dituzte:

a) Laguntza edo dirulaguntza emateko ezarritako baldintzak betetzen ez badituzte, jasotako funtsak itzultzea.

b) Kontrol Ekonomikoko Bulegoak eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiak laguntzen zertarakoaren fiskalizazio-funtzioak betetze aldera eskatutako informazio guztia ematea.

c) Dirulaguntzak zertarako eta nola erabili diren ziurtatzea zerrenda bidezko bermeen bitartez, abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuan ezarritakoarekin bat etorritik. Dekretu horrek Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorren kontura ematen diren dirulaguntzen bermeei eta horien itzulketei buruzko erregimen orokorra arautzen du, eta horien kudeaketan parte hartzen duten erakunde laguntzaileek bete beharreko baldintzak, erregimena eta eginbeharrak ezartzen ditu.

17. artikulua.– Dirulaguntzaren baldintzen aldaketa.

Dirulaguntza emateko kontuan hartutako edozein baldintza aldatuz gero –haren helburua betetzat jotzen bada, betiere–, eta, hala dagokionean, beste administrazio edo erakunde publiko nahiz pribatu batzuetatik beste laguntza edo dirulaguntza batzuk eskuratzen badira, edota helburu bere-rako beste diru-sarrera zein baliabide batzuk eskuratzen badira, dirulaguntza emateko ebazpena aldatu ahal izango da. Ondorio horietarako, Gizarte Ekonomiaren Zuzendaritzak aldaketa egiteko ebazpena emango du, zeinaren bidez, emandako dirulaguntzen zenbatekoak egokitu egingo baitira, eta pertsona onuradunek itzuli egin beharko dituzte neurritz gain jasotako zenbatekoak.

18. artikulua.– Ez-betetzeak eta erantzukizunak.

1.– Erakunde onuradunak betetzen ez baditu dirulaguntzak emateko ebazpenean ezarritako arauak, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 37. artikuluan ezarritako arauak eta erabilgarri diren gainerako xedapenak; edo aurkeztutako datuak egiazkoak ez badira; edo emandako dirua, helbururako erabili beharrean, beste zerbaiterako erabili bada; orduan, Gizarte Ekonomiaren Zuzendaritzak berariaz horretarako hasitako espedientea izapidetuko du, eta interesdunari hamabost eguneko epea emango dio esan behar duena entzuteko, eta, ondoren, hala badagokio, onuradunak dirulaguntza galduko du, eta, bi hileko epean, ordura arte jasotako dirulaguntzak (osorik edo partez) eta legez dagozkien berandutze-interesak itzuli beharko dizkio Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusiari; horretaz gainera, legez egin daitezkeen

gainerako egintzak ere egingo dira. Hori guztia, hauetan ezarritakoa betez: abenduaren 17ko 698/1991 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorren kontura ematen diren dirulaguntzen bermeei eta horiek itzultzeari buruzko erregimen orokorra arautzen duena eta horien kudeaketan parte hartzen duten erakunde laguntzaileek bete beharreko baldintzak, erregimena eta eginbeharrak ezartzen dituena; eta azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretua, Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartzen duena.

2.– Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 37.2 artikuluan ezarritakoa aintzat hartuta, ez-betetzeak mailakatzeko eta beti proportzionaltasun-printzipioari jarraikiz, hau ezartzen da: erakunde onuradunak hasieran aurkeztutako aurrekontuaren gutxienez % 60 erabiltzen duenean, itzuli beharko da, edo, hala badagokio, erabili ez den zatiaren ordainketa partziala egin beharko da eta zati horren kobrantza proportzionala jasotzeko eskubidea galduko da, betiere proiektuaren helburuen betekizuna guztizko betekizunen antzekoa bada, eta erakunde onuradunak zalantzarik gabe egiaztatzen badu konpromisoak betetzeko jarduketa berri bat.

3.– Hauek dira dirulaguntzen arloko arau-hauste administratiboak: Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren IV. tituluan tipifikatutako ekintzak eta ez-egiteak; eta zehagarriak dira, zabarkeria arin gisa bada ere. Dirulaguntzen gaineko arau-hauste horiek zehatzeko, diru-zehapenak jarriko dira, eta, hala badagokio, diruzkoak ez diren zehapenak ere.

19. artikulua.– Dirua itzultzeko prozedura.

Aurreko artikuluan aurreikusitako ez-betetzeen kasuan, honako hau izango da jasotako laguntzak itzultzeko prozedura:

a) Gizarte Ekonomiaren zuzendariak ebazpen bidez jakinaraziko dio erakunde onuradunari dirua itzultzeko prozedura hasi dela eta zergatik hasi den prozedura hori; horretaz gainera, 15 eguneko epea emango dio, egoki iritzitako alegazioak egin ditzan.

b) Alegazioak jasota edo batere aurkeztu gabe igaro bada epea, Gizarte Ekonomiaren zuzendariak ebazpen baten bidez xedatuko du dagozkion kopuruak EAEko Diruzaintza Nagusiari itzultzeko betebeharra, bi hileko gehieneko epea emanez horretarako, ebazpena jakinarazten denetik aurrera. Epe hori borondatezko aldia izango da.

Laguntzak itzultzeko prozedura gehienez ere hamabi hilabeteko epean ebatzi beharko da.

c) Kopuru horiek borondatezko epean itzultzen ez badira, horren berri emango zaio Eusko Jaur-laritzako Ekonomia eta Ogasun Saileko Finantza eta Aurrekontuen Sailburuordetzari, hark, aplikadaitekeen lege-araudian xedatutakoa betez, premiamendu-bideari ekiteko.

20. artikulua.– Datuak babestea.

Agindu hau aplikatuz jasotzen diren datu pertsonalak Datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan eta aplikatu beharreko gainerako araudian xedatutakoaren arabera tratatuko dira.

Datu-babesari buruzko informazio xehatua lortzeko, helbide honetara jo daiteke: <https://www.euskadi.eus/rgpd/0036521>

XEDAPEN GEHIGARRIA.– De minimis araua.

Agindu honetan jasotako laguntzek edo dirulaguntzek hau bete beharko dute: Batzordearen 1407/2013 Erregelamendua (EB), 2013ko abenduaren 18koa, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. eta 108. artikulua minimis laguntzei aplikatzeari buruzkoa

(2013-12-24ko EBAO, L 352). Sozietate kooperatibei eta lan-sozietateei soilik aplikatuko zaie. Laguntza hauek minimis motako laguntzatzat jotzen dira; izan ere, pertsona fisiko edo juridiko jakin bati emandako laguntzaren guztizkoak ez du gaindituko 200.000 euroko kopurua, hiru ekitaldi fiskaleko edozein eperen barruan. Muga horretatik beherako dirulaguntzek merkataritzari eragiten ez diotela edota lehiakortasuna faltsutzen ez duela ulertzen da; horren ondorioz, ez dira sartzen Europako Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Itunaren 107.1 artikulua aplikazio-eremuan.

Dagokion ekitaldi fiskalean eta aurreko bietan jasotako beste minimis laguntza batzuk deklaratu egin beharko ditu laguntza-eskabidea egiten duenak, modu horretara, minimis laguntza berriak erregelamenduan ezarritako gehieneko muga gainditzen ez duela egiaztatzeko.

**AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA.**– Aplikatu beharreko araudia.

Agindu honetan adierazitako dirulaguntzetarako, hauetan ezarritakoa aplikatuko da: Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateginaren VI. titulua (azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren bidez onartu zen testu bategin hori); Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legea, eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren oinarritzko arauak (Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuak garatutako lege orokorra).

**AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA.**– Errekurtsoak.

Agindu honen aurka, aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez dakioke Lan eta Justiziako sailburuari, hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 112. artikuluan eta hurrengoetan jasotakoarekin bat etorritik. Bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke zuzenean EAeko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hileko epean, Agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, betiere Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 10.1.a) eta 46.1 artikuluetan ezarritakoa betez.

**AZKEN XEDAPENETAKO HIRUGARRENA.**– Ondorioak.

Agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko ekainaren 14a.

Jaurlaritzako bigarren lehendakariorde eta Lan eta Enpleguko sailburua,  
IDOIA MENDIA CUEVA.